

## PROZEDURAREN FASEAK

---

Konpetentziak ebaluatu eta egiaztatzeko prozeduraren faseak:

- 1 . - Aholkularitza.
- 2 . – Konpetentzia profesionalaren ebaluaketa.
- 3 . – Konpetentzia profesionalaren egiaztapena eta erregistroa.

### Lehen fasea: AHOLKULARITZA

Onartutako guztiek egin behar dute fase hau. Aholkulariak lagunduko du dagokion lan-esperientziaren eta/edo prestakuntzaren bitartez eskuratutako konpetentzia profesionalak identifikatzen eta Ebaluazio Batzordeari aurkezten.

Aholkulariak hezkuntzako edo prestakuntzako profesionalak edota egiaztapenaren xede den konpetentzia-ataletan adituak dira, prozeduran prestatutakoak eta ofizialki gaitutakoak euren lana egiteko.

Fase honetan, zeregin hauetan lagunduko dute:

- Prozeduraren faseak eta garapena ezagutzen.
- Auto-ebaluazioko galdera-sorta egiten.
- Izena emandako konpetentzia-atalekin lotuta, dagokion konpetentziaren ebidentzia guztiak biltzen.
- Lanbide eta prestakuntza historia betetzen.
- Konpetentzien txostena prestatzen.

Aholkularitza LEHEN TALDE BILERAREKIN hasten da. Aholkulariak hitzordua emango du lehen bilera horretarako. Telefono mugikorraren, posta elektronikoaren edo ohiko postaren adi egon behar da, hitzordua baliabide horien bitartez iritsiko baita.

Ondoren, aholkulariak hitzordua emango du AHOLKULARITZAKO BANAKO BILER(ET)ARAKO -hori(ek) ere nahitaezkoak d(ir)a-. Bilera horretan/horietan, elkarrizketa profesionala egingo da aholkatzeko helburuarekin.

Azken aholkularitza-bileran, konpetentzia-atal bakoitzean egiaztatzeko aukeren berri emango da, eta **Ebaluaziorako Izena emateko Gomendioak** entregatuko dira.

Bidezkotzat joko balitz, prestakuntza-ekintza batzuk gomendatuko dira eta **I. Prestakuntza-plana** entregatuko da.

Bakoitzak askatasunez erabakitzen du ebaluazio-fasera pasatu ala ez eta zein konpetentzia- ataletan matrikulatu.

## Bigarren fasea: KONPETENTZIA PROFESIONALA EBALUATZEA

Ebaluazio-fasean, hautagaien konpetentzia profesionala egiaztatzen da, konpetentzien txostenean eta aholkulariaren txostenean jasotako ebidentziak kontuan izanda.

Ebaluazioa egiteko, aholkulariaren txostena eta hautagaiak aurkeztutako dokumentazio guztia aztertuko dira eta, hala badagokio, izena eman deneko konpetentzia-ataletan eskatutako konpetentzia profesionalak ebaluatzeko beharrezkoak diren ebidentzia gehiago bilduko dira.

Erabakiak hartzeko organo arduraduna Ebaluazio Batzordea da.

Konpetentzien txostena eta aholkulariaren txostena aztertu ondoren, Ebaluazio Batzordeak hautagaiari hartutako erabakiak helaraziko dizkio, zeharkako ebidentzien **Balioespen-irizpenaren** bitartez.

Balioespen-irizpen hori txosten bat da. Txosten horretan adierazten da bai probarik gabe aintzatetsitakoa, bai oraindik aintzatetsi ez dena. Aintzatetsi ez denerako ebidentzia osagarriak (konpetentzia-probak) aurkeztu beharko dira.

Ebidentzia osagarriak **Banakako ebaluazio-planaren** bidez biltzen dira.

Banakako ebaluazio-plana txosten bat da, oraindik aintzatetsi ez dena eta konpetentzia-probak egin behar direla adierazten duena. Probak egiteko lekua, data eta ordua adierazten dira.

Konpetentzia-atal guztietan konpetentziarik egiaztatu ez bada, Ebaluazio Batzordeak **II. Prestakuntza-plana** igorriko du. Horretan, zertan prestatu beharra dagoen adieraziko da.

## Hirugarren fasea: KONPETENTZIA PROFESIONALA EGIAZTATU ETA ERREGISTRATZEA

Ebaluazio-fasea gainditu ondoren, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuak dagokion konpetentzia profesionala egiaztatu deneko konpetentzia-atal bakoitzaren egiaztapena igorriko du.